

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Zierbenako Udala

Ayuntamiento de Zierbena

2021





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	10
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa	10
III.3 Pertsonala.....	11
III.4 Kontratazioa.....	11
III.5 Transferentziak eta dirulaguntzak	12
III.6 Beste alderdi batzuk	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	13
V. URTEKO KONTUAK	15
V.1 Udala	15
V.2 Zierbena Portua S.A.	18
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizatutako erakundearen izaera eta ezargarria	19
A.2 Aurrekontua eta haren aldaketak	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	20
A.4 Transferentziek, dirulaguntzek eta beste batzuek eragindako sarrerak	21
A.5 Pertsonaleko gastuak.....	22
A.6 Ondasun korronteen eta zerbitzuen eta inbertsioen kontratazioa	23
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntza korronteak.....	25
A.8 Aurrekontuko zordunak eta pasibo korrontea	26
A.9 Zierbena Portua S.A.	27
A.10 Kontratazioaren analisisa.....	29
ALEGAZIOAK.....	31



ABREVIATURAS	41
I. INTRODUCCIÓN	43
II. OPINIÓN	44
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	44
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	44
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	46
III.1 Presupuesto y contabilidad	46
III.2 Ingresos y recaudación.....	46
III.3 Personal.....	47
III.4 Contratación	47
III.5 Transferencias y subvenciones	48
III.6 Otros aspectos.....	48
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	49
V. CUENTAS ANUALES	51
V.1 Ayuntamiento.....	51
V.2 Zierbena Portua, S.A.....	54
ANEXOS	55
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	55
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	55
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	56
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos.....	57
A.5 Gastos de personal	58
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones	59
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	61
A.8 Deudores presupuestarios y pasivo corriente.....	62
A.9 Zierbena Portua, S.A.....	63
A.10 Análisis de contratación	65
ALEGACIONES	67

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 30a

Vitoria-Gasteiz, 30 de noviembre de 2023



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BBUP	Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LEI	Lanerako Ezintasun Iragankorra.
LPZ	Lanpostuen zerrenda.
SPKL	9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.





Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak onartutako Lan Programari jarraikiz, Zierbenako Udalaren 2021eko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta bere sozietatearen balantzea, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua, oroitidazkia eta aurrekontuaren likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Zierbenako udalerrriak 1.516 biztanle zituen 2021eko urtarrilaren 1ean eta Udalean, udal administrazioa eta Zierbena Portua S.A. sozietatea (% 100) barne hartzen ditu; azken honek portuko instalazioak kudeatzen ditu. Gainera, partaide da Meatzaldeko Behargintza S.L. sozietatean (% 20), zeinak eskualdeko 5 udalen enpleguko eta garapen ekonomikoko udal eskumenak kudeatzen baititu. Halaber, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kide da, udalerriko ur-horniduraren eta -saneamenduaren kudeatzaile dena.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak 2021ean 2 zerbitzu-kontratu gauzaten jarraitu zuen, 328.951 euroren kostuarekin, nahiz bi-biak mugaeguneratuak zeuden eta luzaezinak izan (SPKLren 29.4 artikulua) (ikus A.10).
2. Udalak zuzenean kontratatu zuen 2021ean energia elektrikoaren hornidura, guztira 91.722 euroko kostua zuena, zegokion prozedura irekia erabili gabe eta publikotasun eta lehia printzipioak errespetatu gabe (ikus A.10).
3. Udalak bere langileen alde osasun-laguntzarako aseguru bat kontratatu zuen 2010ean, zuzenean eta isilbidez gaur egun arte luzatu dena, publikotasun eta lehia printzipioak errespetatu gabe. 2021eko gastua 20.238 eurokoa izan da. Zenbatekoa eta exekuzioaren jarraitutasuna kontuan hartuta, prozedura ireki bidez lizitatu beharko zatekeen (ikus A.10).

Epaitegi honen iritzira, Zierbenako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateek, letik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2021eko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jarduera arautzen duen lege araudia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Zierbenako Udalaren Gastu Orokorren Diruzaintza Geldikinean eragina duten doiketak 2021eko abenduaren 31n:

ERANSKINA KONTZEPTUA	GODG	Euroak milakotan		
		ONDAREKOA		
		AKTIBOA	PASIB.	OND.GARB.
A.3 2022an zerga-zehapena itzultzea	(100)	-	100	(100)
A.4 Moreo sektorearen hirigintzako aprobetxamendua, 2022an kobratua		1.298	-	1.298
A.6 2021eko gastuak, 2022ko aurrekontuaren kontura aitortuak	(24)	-	24	(24)
A.8 Nekez kobragarri diren saldoen horniduraren mentsa	(18)	(18)	-	(18)
GUZTIRA	(142)	1.280	124	1.158

2. Udalak ez du ibilgetuan eragina duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetua osatzen duten elementuen xehakapenik egiten. Udalak inbentario bat egin zuen 2018an, zeina kontabilitate-saldoekiko desberdina baita eta zeina ez baitzen ibilgetuaren kontabilitate-saldoak zuzentzeko erabili. Horregatik guztiagatik, ezin esan daiteke aktibo ez korrontearen saldoek, guztira 24 milioi euro, Udalaren ondasun eta eskubideen egiazko egoera 2021eko abenduaren 31n islatzen duten.
3. EIOZren likidazio bati eta zerga horren ikuskapen-akta bati (298.700 eta 111.297 euro, hurrenez hurren), 2021eko diru-sarrera gisa aitortuak, errekurtsua jarri zitzairen,



zergadunek uste baitzuten inbertsioak zergatik salbuetsita zeudela; txosten hau idatzi dugun datan auzia epaiaren zain dago. Udalaren Kontu Orokorraren Memoriak ez zuen 2021eko abenduaren 31n kontzeptu horrengatik zeuden kontingentzien berri eman.

4. Zierbena Portua S.A.k ez zuen erregistratu 2000. urtean Udalak Sozietateak kudeatzen dituen portuaren instalazioak doan laga izana, ezta sozietateak 2001ean eta 2005ean hirugarrenei pabiloi bat eta eraikin baten zati bat doan laga izana ere (ikus A.9).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Zierbenako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2021eko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2021eko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira ekonomia eta finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak ez ezik, baita kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2021eko aurrekontuko langileen eranskinak indarreko lanpostuen zerrenda baino ez zuen jasotzen, pertsonaleko gastuen aurreikuspenak kalkulatzeko irizpideak zehaztu gabe, eranskinaren eta aurrekontuko kredituen arteko korrelazio egokia emateko.
- 2021eko aurrekontuan 468.342 euroren kredituak txertatu ziren, 2018an eta 2019an aurrekontuan sartutako 3 inbertsioetarako. Araudiak ez du baimentzen txertaketa jarraiturik egitea eta beraz, Udalak beste kreditu batzuk bideratu behar zituzkeen 2021ean inbertsio horiek finantzatzeko.
- Udalak ez zituen erregistratu 2021ean ekitaldian zehar egindako gastu-esleipenak (D fasea), faseak metatu baitzituen eta ez baitzuen kontabilitateko idatzoharrik egin gastua onartu arte (ADO). Aurrekontua gauzatzeko oinarriek faseak metatzeko aukera ematen dute, bizkortasun- eta ekonomia-arrazoiengatik, baina zenbateko handiko adjudikazioak erregistratu egin beharko liriateke, aurrekontuko kredituen betearazpena kontrolatzeko.
- Memoriaren 2021eko abenduaren 31ko gastu-konpromisoei buruzko informazioak ez du barne hartzen etorkizunean 136.000 euroren obrak egiteko BBUPrekiko hitzarmenetik eratorritakoa, ezta 2021-2022 enplegu-planaren hitzarmenean konprometitutako 54.951 euroren ekarpenak ere (ikus A.3 eta A.6).
- Kontu Orokorraren Memoriak ez zuen honako hauei buruzko informaziorik jasotzen: aurrekontuz kanpoko eragiketei, aurrekontu-aldaketei, kreditu-geldikinei, diru-sarreraren aurrekontuaren exekuzioari eta aurrekontu itxiei.
- 2021eko abenduaren 31n eskudirutan jarritako fidantzak, 5 urtetik gorako antzintasuna dutenak, 135.701 eurorenak dira, eta komenigarria da horietan benetako eskagarritasuna berrikustea.
- Udalak dirulaguntza korrante gisa erregistratu zuen Kardeoko gizarte-zentroaren obrarako jasotakoa, 229.480 euro. Bestalde, Zierbena Portua S.A.k eskuratutako kapital-dirulaguntzak ondarearen emaitza ekonomikoari egozteko irizpideak ez du kontuan hartzen dirulaguntzek finantzatutako elementuen amortizazio korrelatiboa, eta alderdi hori zuzendu egin beharko litzateke.

III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- Udal organo eskudunak ez zituen onartu zabor-bilketa eta estolderia tasen hiruhileko likidazioak.



- Udalak aldian-aldian egiaztatu beharko luke, eta gutxienez urteko itxierarekin batera, kobratzeko dauden kontabilitate-saldoak bat datozen diru-sarrerak kudeatzeko aplikazioko saldoekin.

III.3 PERTSONALA

- Udalak ez zion publikotasunik eman 2021eko ordainsari igoera onartu zuen Udaltzatzen erabakiari.
- Oinarrizko ordainsari kontzeptuengatik aparteko 2 pagetan likidatutako zenbatekoak ez datoz bat araudiak finkatutakoekin.
- Udalak ez zuen LPZn jaso 2 langileri guztira 2.684 euroan ordaindutako prestasun-osagarri bat.
- Udalak ez dizkio Bizkaiko Foru Ogasunari aitortzen langileei ordaintzen dizkien gauzako ordainsariak, batik bat bizitza aseguruak eta laguntza sanitarioa; horiek 2021ean 25.232 euro egin dituzte.

III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 3 kontratu nagusiak aztertu ondoren -1,5 milioi euroren adjudikazioei dagozkienak- honako alderdi hauek azaleratu zaizkigu (ikus A.10):

- Aztertutako 3 espedienteek ez dute hautatutako esleipen-irizpideen nahitaezko justifikazio-memoriarik, ez eta balio zenbatetsirik ere, osagaiak eta SPKLren 116.4 artikuluan zehaztutako beste alderdi batzuk zehaztuko dituen (A1 akatsa).
- 659.191 euroan adjudikatutako 2 kontratu esleitzeko irizpideetan (1. eta 2. espedienteak) enpresa lizitatzailen ziurtagiriak baloratu ziren, eta irizpide horrek ez du zerikusi zuzenik kontratuaren xedearekin. Gainera, bigarren espedientearen lizitatzailen egoitza sozialaren edo instalazioen hurbiltasuna baloratu zen, lizitatzailen bete beharreko baldintza berezi gisa sar daitekeena, baina ez esleipen-irizpide gisa. Azkenik, eskaintako prezioa baloratzeko erabilitako formulak benetako balioa murriztu zuen, lizitazio-prezioa hobetzen ez zuten eskaintzei puntuak eman baitziren (A2 akatsa).
- Aztertutako 3 espedienteetan ez dira izenpetutako kontratuak Kontratatzailen Profileen argitaratu. Lehenengo espedientearen kontratazio-mahaiaren bileren aktak eta espedientearen hasteko ebazpena ere ez ziren argitaratu. Hirugarren kontratuan ez zen argitaratu espedientearen hasteko ebazpena (A3 akatsa).
- Agente zibikoen zerbitzu-kontratua, 2021eko udan, 114.899 eurotan adjudikatua, aldatu egin zen, eta iraupena ekitaldia amaitu arte luzatu zen, 6.691 euroko kostuarekin, eta pleguek ez zuten inolako espediente-aldaketarik aurreikusitako. Kontratu horren aurretik, esleipendunak 2021eko urtarrila eta maiatza bitartean eman zuen zerbitzu hori, 15.652 euroren kostuarekin, Gobernu Batzordeak zuzenean esleituta. Gainera, plegu teknikoak kontratatutako diren pertsonen kopurua zehazten du, baina garatu beharreko jarduerak modu orokorrean deskribatzen dira (B akatsa).



Beste erosketa batzuk

- 7 zerbitzu atzeman dira, Zierbena Portua S.A.k eta Udalak zuzenean esleitutakoak; zerbitzu horiek 2021ean 83.295 eta 139.912 euroren kostua izan zuten, hurrenez hurren. Zenbatekoa aintzat hartuta, dagokion kontratazio-prozedura izapidetu beharko zen eta prozedura hori, gutxienez, ireki sinplifikatu laburtua izan beharko zatekeen (ikus A.9 eta A.10).
- Zaborrak biltzeko kontratua 2021eko irailetik aurrera egiten jarraitu zen, baina Udalak ez zuen kontratuan aurreikusitako luzapena formalizatu (ikus A.10).

III.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Udalak ez zien nahitaezkoa den publikotasuna eman dirulaguntzen emakiden ebazpenei.
- Udalak 34.134 euro ordaindu zizkion Meatzaldeko Behargintza S.L.ri, 2015ean sozietate horrek Udalaren administrazio-lanetarako kontratatutako langile baten kostuagatik. Udalak behar bezala antolatu beharko lituzke prestazio horiek.
- Enkarterrialde landa-garapeneko elkarteari dirulaguntza izenduna emateko hitzarmen arautzaileak -8.252 euro- ez zituen ezartzen dirulaguntza justifikatzeko modua eta epeak.
- Udalerriko 6 kirol-erakunderentzako laguntzak arautzen zituzten oinarri-arauek (140.000 euro 2021ean) eskabideak baloratzeko hainbat irizpide ezartzen ezarri zituzten, baina gero, laguntzak banatzean, ez ziren aintzat hartu.

III.6 BESTE ALDERDI BATZUK

- Gardentasun-araudia behar bezala betetzeko, Udalak webgunean honako hauei buruzko informazioa argitaratu beharko luke: egonkortasun-helburuak, langileen kontratazio- eta absentismo-prozedurei buruzko estatistikak, hitzarmenak, udal-ondasun higiezin zerrendak, emandako dirulaguntzak eta udal ordezkarien ondasun eta jardueren aitopenenak. Gainera, Zierbena Portua S.A. udal sozietateak ez du webgune propiorik eta udalaren webgunean ez da haren kontuei, antolamenduari eta ondasunen zerrendari buruzko informaziorik jasotzen. Azkenik, udal-laguntzak jasotzen dituzten elkarte nagusiek gardentasun-araudiaren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko litzateke, batez ere aurrekontuei eta urteko kontuei dagokienez.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera segidako taulan dago zehaztua:

FINANTZAREN ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	(*) 2019	(*) 2020	2021	2019	2020	2021
Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta best. sarr. (1, 2 eta 3 kap.)...	4.976	5.375	6.389	3.340	3.536	4.214
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	1.254	1.212	1.206	842	798	796
Ondare sarrerak (5. kap.).....	57	28	33	38	18	22
A. Sarrera korronteak	6.287	6.615	7.628	4.220	4.352	5.032
Pertsonaleko gastuak (1. kap.).....	514	504	547	345	332	361
Ondasun korronteen erosketa eta zerbitzuak (2. kap.).....	3.554	3.086	3.424	2.385	2.030	2.259
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	816	702	724	548	462	478
B. Funtzionamendu-gastuak	4.884	4.292	4.695	3.278	2.824	3.098
Aurrezki gordina (A-B).....	1.403	2.323	2.933	942	1.528	1.934
Gastu finantzarioak (3. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Emaitza korrontea	1.403	2.323	2.933	942	1.528	1.934
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia	1.403	2.323	2.933	942	1.528	1.934
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	-	22	5	-	14	3
Kapital transferentziek eta diru laguntzek erag. sarrerak (7. kap.).....	114	207	419	77	136	276
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	(1.415)	(830)	(2.523)	(950)	(546)	(1.664)
Kapitalezko eragiketen emaitza	(1.301)	(601)	(2.099)	(873)	(396)	(1.385)
Eragiketa ez finantzarioen emaitza (1etik 7rako kap.)	102	1.722	834	69	1.132	549
Diruzaintza geldikina	3.504	5.180	6.073	2.323	3.373	3.966
Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikina	3.461	4.999	5.990	2.323	3.289	3.951
Zorpetzea 12.31n	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera korronteak: % 21,3 egin dute gora 2019ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** zerga-sarreraren % 28,4ko igoera, nagusiki, ondasun higiezinetan eta EIOZn gertatu da. Hirurtekoan ikuskapen-jarduerak egin ziren eta horiek 1etik 3ra bitarteko kapituluetakoko diru-sarrera guztien % 7,1 sortu zuten. Zerga bidezko diru-sarrerak Udalaren diru-sarrera guztien % 78,9 izan ziren 2021ean, eta ratio hori bera % 39,7koa izan zen EAEko udal guztietan 2020an.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 3,8 murriztu dira, osagai nagusiak, Udalkutxak, % 9,8 egin baitu behera.

Funtzionamendu-gastuak: % 3,9 egin dute behera 2019 eta 2021 bitartean, honako xehakapen honekin:



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- **Pertsonaleko gastuak:** % 6,4 egin dute gora, 2020ko eta 2021eko soldata-igoeren ondorioz, hurrenez hurren. Gainera, Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak % 16 igo ziren.
- **Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa:** % 3,7 egin zuten behera, kopuru txikiko askotariko bariazioen ondorioz.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 11,3 egin dute behera, 2019an Enkartur Turismo Encartaciones-Elkarteari eman zitzaion 140.000 euroko laguntzagatik, gastuen kapitulu honetako gainerako osagaietan aldaketa nabarmenik izan gabe.

Aurrezki gordina eta garbia: Zorpetzerik ez izateak berdindu egin ditu aurrezki gordina eta garbia; horiek 2021ean 2,9 euro egin zuten, sarrera korronteen gainean % 38,4. Horren zenbatekoa bikoiztu egin da hirurtekoan, zerga-sarrerak izan duten aldeko bilakaeraren ondorioz.

Kapital-eragiketen emaitza: hirurtekoako inbertsioek 4,8 milioi euro eragin dituzte eta inbertsio horien % 15,5 dirulaguntza bidez finantzatu da eta gainerakoa, sortutako aurrezkiarekin.

Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina: 2,6 milioi euro gehitu da, 2020an eta 2021ean sortutako aurrezki garbiak kapitalezko eragiketak gainditu dituelako. 2021eko abenduaren 31ko GODGa 6 milioi eurokoa da, ekitaldi horretako sarrera arrunten % 78,5, eta hirurtekoako inbertsio guztiak gainditzen ditu.

Ondorioa: zerga-sarreraren hazkundeak eragiketa korronteen egitura hobetu du eta aurrezpen handiagoak lortu ditu, geldikin erabilgarria handitu dutenak.

Aurrekontuaren egonkortasuna: 2021ean arau fiskalek etenda jarraitu zuten, eta BFAk erreferentzia-tasa bat ezarri zuen eragiketa ez-finantzarioetarako; Udalak zuzen bete zuen tasa hori, eragiketa horietan superabita izan baitzuen.



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2021EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB.	KOBR.		%
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.	AITOR.	KOBR.	GABEA	
1 Zerga zuzenak.....	A.3	4.650	30	4.680	4.814	4.788	26	% 103
2. Zeharkako zergak.....	A.3	192	-	192	912	912	-	% 475
3. Tasak eta bestelako sarrerak.....	A.3	476	5	481	663	618	45	% 138
4. Transferentzia korranteak.....	A.4	1.157	-	1.157	1.206	1.206	-	% 104
5. Ondare-sarrerak.....	-	50	-	50	33	33	-	% 66
6. Inbertsio errealen besterentzea.....	-	1	-	1	5	5	-	-
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	279	26	305	419	315	104	% 137
8. Aktibo finantzarioak.....	-	-	3.440	3.440	-	-	-	(*)-
9. Pasibo finantzarioak.....	-	-	-	-	49	49	-	-
SARRERAK, GUZTIRA		6.805	3.501	10.306	8.101	7.926	175	(*) % 118

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG.	ORDAIN.		%
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.	AITORT.	ORDAINK.	GABEA	
1. Pertsonaleko gastuak.....	A.5	831	-	831	547	547	-	% 66
2. Ondasun korrante eta zerb. kontrat.	A.6	3.855	258	4.113	3.424	2.992	432	% 83
4. Transferentzia korranteak.....	A.7	923	5	928	724	724	-	% 78
6. Inbertsio errealak.....	A.6	926	3.238	4.164	2.523	2.063	460	% 61
7. Kapitalezko transferentziak.....	-	270	-	270	-	-	-	-
GASTUAK, GUZTIRA		6.805	3.501	10.306	7.218	6.326	892	% 70
SARRERAK - GASTUAK					883			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSKINA	HASIERAKO		BALIOG.	KOBR./ ORDAINK.	AZKEN ZORRA
		ZORRA	ZORRA			
Kobratzeko dauden saldoak.....	A.8	662	-	-	564	98
Ordaintzeko dauden saldoak.....	-	375	10	10	357	8
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA					10	



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	8.101
Obligazio aitortuak	7.218
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	883
AURREKO EKITALDIETAKO KITATUTAKO AURREK. ERAGIKETEN EMAITZA	10
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA	893
Finantzaketako desbideratzeak	106
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	2.595
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	3.594

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 21.1.1ean.....	5.180
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza.....	893
DIRUZAINZA-GELDIKINA 21.12.31-N	6.073
Diruzaintzako funts likidoak	7.395
Sarreraren aurrekontuko zordunak	273
Aurrekontuz kanpoko zordunak	3
Gastu-aurrekontuaren hartzekodunak	(900)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(698)
DIRUZAINZA GELDIKINA 21.12.31-N	6.073
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak (A.8 eranskina)	(60)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza geldikina	(23)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA 21/12/31-N	5.990

KONPROMISO-KREDITUAK	Euroak milakotan	
	AURREKONTUA	HITZARTUA
HAPOn idazketa (2022 eta 2023)	125	116
GUZTIRA	125	116



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BALANTZEAK 2021EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2021	2020	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSKINA	2021	2020
AKTIBO EZ-KORRONTEA		24.037	22.049	ONDARE GARBIA		30.001	27.177
lbilgetu ukiezina		45	50	Ondarea		6.612	6.612
lbilgetu materiala		23.871	21.878	Aurreko ekitaldietako emaitzak		20.094	18.218
Epe luz. finantza inbertsioak		121	121	Ekitaldiaren emaitza		2.676	1.876
				Jasotako dirulag., egozteko zain		619	471
				PASIBO EZ-KORRONTEA	A.4	24	-
AKTIBO KORRONTEA		7.611	6.149	PASIBO KORRONTEA		1.623	1.021
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.8	216	616	Epe lab. zorrak	A.8	844	612
Eskud. eta bst. aktibo likido batz...		7.395	5.533	Taldeko entitateen epe laburr zorrak....	A.4	24	-
				Hartzek. eta ordain. beste kontu batz ..	A.8	755	409
GUZTIRA		31.648	28.198	GUZTIRA		31.648	28.198

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA, 2021 ETA 2020

Euroak milakotan

	2021	2020
Zergak	5.726	4.972
Tasak	477	241
Hirigintzako sarrerak.....	5	-
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	1.477	1.248
Kudeaketa korronteko beste sarrera b.	172	173
KUDEAKETA KORRONTEKO SARRERAK GUZTIRA	7.857	6.634
Pertsonaleko gastuak.....	(624)	(581)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(724)	(702)
Kudeaketa arrunteko bst gstu batz.....	(3.347)	(3.009)
lbilgetua amortizatzea	(526)	(474)
KUDEAKETA KORRONTEKO GASTUAK GUZTIRA	(5.221)	(4.766)
KUDEAKETA KORRONTEAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI EZA)	2.636	1.868
Korronteak ez diren beste partida batzuk	7	-
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZAK	2.643	1.868
Sarrera finantzarioak	40	17
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak	(7)	(9)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	33	8
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI EZA)	2.676	1.876



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 ZIERBENA PORTUA S.A.

BALANTZEAK 2021EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan		
AKTIBOA	ERANSKINA	2021	2020	ONDARE GARBIA ETA PASIB. GUZT. ERANSK.	2021	2020
AKTIBO EZ-KORRONTEA		2.408	2.514	ONDARE GARBIA	2.495	2.596
lbilgetu materiala	A.9	2.408	2.514	Kapital soziala.....	60	60
				Dirulag., dohaintza eta legatuak	A.9 2.435	2.536
				PASIBO EZ-KORRONTEA	1	1
AKTIBO KORRONTEA		125	117	PASIBO KORRONTEA	37	34
Zordunak eta kobr. bst knt b.....		16	19	Merkataritzako hartzekodunak	37	34
Eskudirua eta aktibo baliokideak...		109	98			
GUZTIRA		2.533	2.631	GUZTIRA	2.533	2.631

2020KO ETA 2021EKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK				Euroak milakotan		
	ERANSKINA	2021	2020			
Negoio zifraren zenbateko garbia		4	5			
Hornidurak		-	(7)			
Bestelako ustiaketa-sarrerak	A.9	449	455			
Pertsonaleko gastuak	A.9	(182)	(186)			
Ustiapeneko beste gastu batzuk	A.9	(249)	(218)			
lbilgetua amortizatzea	A.9	(125)	(137)			
lbilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozteak.....	A.9	101	83			
Beste emaitza batzuk		2	5			
USTIAPENAREN EMAITZA		-	-			
EMAITZA FINANTZARIOAK		-	-			
EMAITZA ZERGA AURRETIK		-	-			
EKITALDIAREN EMAITZA		-	-			

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZATUTAKO ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Zierbenako Udala toki entitate bat da, eta oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dute.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu horiek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatiko sarrerak, ondare-sarrerak, dirulaguntzak eta kreditu-eragiketak.

Ekitaldian ezargarrria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 10/2003 Foru Arauak jasotzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 139/2015 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen baitu.

A.2 AURREKONTUA ETA HAREN ALDAKETAK

2021eko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2020ko abenduaren 30eko Osoko Bilkurak onartu zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2021eko martxoaren 8an eman zen argitara.

Hona hemen, 2021eko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan			
	Kreditu gehikuntza	Kreditu osagarria	Gai- kuntzak	GUZTIRA
1 Zerga zuzenak	-	30	-	30
3. Tasak eta bestelako sarrerak	-	-	5	5
7. Kapitalezko transferentziak	-	-	26	26
8. Aktibo finantzarioak.....	2.524	916	-	3.440
SARRERAK, GUZTIRA	2.524	946	31	3.501
2. Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontrat.....	17	241	-	258
4. Transferentzia korrontek.....	-	-	5	5
6. Inbertsio errealak	2.507	705	26	3.238
GASTUAK, GUZTIRA	2.524	946	31	3.501

Onartutako 6 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 51,5 gehitu dute.

2021eko aurrekontuaren likidazioa 2022ko martxoaren 2ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2022ko ekainaren 30eko Udalbatzaren bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak zehaztuta:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Sarrera
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	1.679
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.....	112
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	2.858
Ikuskaritzako sarrerak Ondasun higiezinaren eta Jarduera ekonomikoen gaineko zergak.....	165
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	4.814
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	675
Ikuskaritzako sarrerak Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga	237
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	912
Zabor-bilketa	41
Estolderia.....	11
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak	169
Enpresa hornitzaileek lurra, lur azpia eta hegala okupatzea.....	219
Premiamendu eta berandutza interesen errekarguak	40
Beste tasa batzuk: etxez etxeko laguntza., hilerria, ibiak, telefono-enpresak, etab.....	21
Sare elektrikoa handitzeagatik udal lursailetan zortasun kalte-ordaina.....	123
Bestelako sarrerak: aseguruaren kalte-ordainak, dirulag. eta kostu judizialak itzultzea, etab.	39
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	663
1, 2 ETA 3 KAPITULUAK GUZTIRA	6.389

Udalak kutxa irizpidea aplikatu du zabor-bilketa eta estolderia tasen diru-sarrerak aitortzean, ekitaldi horretako kobrantza-erroladak aitortu beharrean. Bi tasak Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak biltzen ditu eta Udalak hirulean behin transferitzen dizkion zenbatekoak erregistratzen ditu. Lehenengo kasuan, tarifa finkoa da, eta hiruhileko natural bakoitzeko lehen egunean sortzen da; bigarrenean, aldiz, aldatu egiten da uraren kontsumoen arabera. 2021eko hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako likidazioak 2022ko urtarrilean eta maiatzean jakinarazi zitzaizkion Udalari, hurrenez hurren, eta 2022ko diru-sarrera gisa aitortu ziren. 2 hiruhilekoen horien ordainetan jasotako transferentziak eta bi tasengatik kobratzeko zeuden ordainagiriek guztira 26.769 euro egin zuten.

Udalak 2002an Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoari ur-horniduraren kudeaketa osoa eskualdatu zion eta Udalak Partzuergoko eskualdeko kolektoreekin bat egiten duen estolderia-sareari eutsi zion. 2024ra arteko indarra duen sinatutako hitzarmenak aurreikusten zuen Partzuergoak ingesatuko zuela zerbitzua finantzatzen duen hornidurata. Gainera, Udalak bigarren mailako sarean 880.000 euroren hobekuntza-inbertsioak egin behar zituen; 2021eko abenduaren 31n 136.000 euroren obrak daude egiteko.

Udalak udal jabari publikoaren okupazio-tasa jasanarazi zien elektrizitatea, gasa eta petrolio-produktuak banatzen dituzten 4 enpresari, eta zenbateko bat jasanarazi zien bere garraio- eta banaketa-sareek eragindako lurzoru, hegal edo lurpe publikoaren metro koadro bakoitzeko. 2014tik 2021era bitartean egindako likidazioak ez dira diru-sarreratzat aitortu, errekurritu egin baitira; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak epaia

eman zuen 2022ko urrian, eta likidazioak -eta zeharka udal-erregulazioa- baliogabetzat jo zituen, udal-ondarearen erabilera mota desberdinak ez bereizteagatik.

Udalak, 2022ko urtarrilean, 100.394 euroko zenbatekoa itzuli zuen aurreko ekitaldietan ezarritako zerga-zehapenengatik. Zehapen horiek administrazioarekiko auzien epaitegi baten 2020ko urriko epaiaren bidez baliogabetu ziren, eta ordainketa 2022ko aurrekontuaren kargura erregistratu zen.

A.4 TRANSFERENTZIEK, DIRULAGUNTZEK ETA BESTE BATZUEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 4. eta 7. kapitulueta diru-sarrerak xehakaturak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan Zenbatekoa
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza: 2021eko aurrerakinak	1.025
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza: 2020ko likidazioa	(49)
Udalkutxa-zerga itunduetan partaidetza: 2019ko likidazioa	30
Oinarrizko gizarte zerbitzuak-gizartekutxa	38
Etxez etxeko laguntza eta gizarte zerbitzuen kartera	33
Euskararen erabilera, kultur jarduerak eta beste sustatzea	20
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	25
Kontsumitzaileentzako informazio-bulegoa, bake-epaitegia eta liburutegi-liburuak.....	9
BESTE BATZUK	
Ortuellako Udala: Lanbide 2019-2020 Enplegu plana, likidazioa	11
Ortuellako Udala: Lanbide 2020-2021 Enplegu plana, aurrerakina	34
Trapagarango Udala: Lanbide 2021-2022 Enplegu plana, aurrerakina	14
Itundu gabeko tributuak eta Gizarte Segurantzako LEI konpentsazioa	16
4. KAPITULUA GUZTIRA	1.206
EAE: zentro soziala Kardeon	229
EAE: La Arenako haur-jolasen plazaren erreforma integrala	141
BFA: edukiontzi organikoa eta zentro soziala Kardeon	49
7. KAPITULUA GUZTIRA	419

Udalak 2021eko itundutako zergen dirubilketan (Udalkutxa) duen partaidetzagatiko aurrerakinak 2022ko otsailean likidatu ziren, eta Udalaren aldeko saldoa 94.771 euro izan zen, zeina 2022ko diru-sarrera modura erregistratu zen. 2021ean 2019ko eta 2020ko likidazioak sarrera eta gastu modura aitortu ziren, 30.108 eta 49.041 euroren zenbatekoan, hurrenez hurren. Udalkutxa 2020ren likidazioaren BFAren aldeko azken zenbateko hori atzeratu egin zen, eta BFAk bi epe berdinetan ordaintzea ezarri zuen 2022an eta 2023an. 49.041 euroko geroratutako zenbatekoa 9. kapituluko diru-sarrera gisa aitortu zen, eta dagokion zorra balantzearen pasiboan jaso zen, epe labur eta luzean bereizita.

Meatzaldeko Behargintza S.L.n parte hartzen duten 5 udalek egindako kontratazioetarako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2020-2021 Enplegu Planeko laguntzak Ortuellako



Udalak kobratu zituen, eta, ondoren, beste udalei transferitu zien, administrazio bakoitzari dagokion zenbatekoa emanez.

2022ko urtarrilean Udalak 1,3 milioi euro sartu zituen Moreo sektorearen hirigintza-aprobetxamenduaren kontzeptuarekin. Udalak 2007an onartutako sektorearen birpartzelazioak udalak hirigintza-gainbalioetan zuen partaidetzaren monetizazioa agindu zuen, eta atzeratu egin zen haren kobrantza hasierako sustatzailearen arazo ekonomikoen ondorioz; horrek lurra eskualdatzea ekarri zuen, eta jabe berriak ordaindu zuen zorraren printzipala.

A.5 PERTSONALEKO GASTUAK

Gastu-kapitulu hau era honetara xehakatzen da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan eta lanpostu kopurua		
	GASTUA	LPZ	Plantilla 21/12/31
Funtzionarioak.....	186	15	(*) 6
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	194	-	(**) 5
Ordainsarien guztizko partziala	380	15	11
Gizarte Segurantzaren	131		
Elkarkidetzaren.....	11		
Langileen eta senitartekoen arreta sanitarioa	20		
Bizi-aseguruak.....	5		
GUZTIRA	547		

(*) Karrerako 5 funtzionario eta lanpostu hutsa betetzeko bitarteko funtzionario 1.

(**) Lan-kontratuko langile finko bat, lanpostu hutsak betetzeko 2 bitarteko kontratazio eta obrako 2 kontratu.

Langileen ordainsariak % 0,9 igo ziren 2021ean.

Udalak Gizarte Segurantzaren lanerako ezintasun iragankor kontzeptuko prestazioak osatu zituen eta 2021ean 4.244 euroren kostua eragin dute.

2021ean ez da langilerik kontratatu.



A.6 ONDASUN KORRONTEEN ETA ZERBITZUEN ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioak honako xehakapen hau du:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan Gastua
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	277
Azpiegiturak eta ondasun naturalak	237
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	31
Garraio-gaiak.....	9
Bulegoko materiala	22
Hornidurak	161
Energia elektrikoa	92
Ura, gasa, gasolioa eta bestelako hornigaiak	69
Komunikazioak	42
Aseguru-primak	23
Tributuak	217
Portuko instalazioak lagatzeko 2021eko kanona	203
Beste portu-tasa batzuk kirol-ontziengatik eta Kosta Zuzendaritza Nagusiaren tasa	14
Askotariko gastuak	641
Gastu juridikoak-errekurtso judizialen defentsa eta tasak.....	55
Kirol- eta kultura-jarduerak Mendi Bira, pilota jaialdia, udalekuak, emanaldiak, etab.....	107
Meatzaldeko Behargintza S.L.ri transferentziak: enplegua sustatzeko programa	70
Udako eta asteburuetak agente zibikoen zerbitzua: La Arena eta El Puerto sarbide eta aparkalek.....	138
Euskara zerbitzua: itzulpenak eta hizkuntzaren normalizazio-sustapena	63
Lege- eta hirigintza-aholkularitzako zerbitzuak.....	97
Turismo bulego zerbitzua ekainetik irailera.....	18
Babes zibileko eta berdintasuneko planak idaztea	18
Bestelako gastuak (publizitatea eta propaganda, Enkarterrialdeko kuota, banku-komisioak, etab.).....	75
Kanpoko enpresek egindako lanak	1.965
Kiroldegiaren kudeaketa: harrera, garbiketa, mantentze-lanak eta ikastaroak.....	419
Bideak garbitzea eta berdeguneak mantentzea	287
HHSen bilketa eta paperaren, pilen, olioaren eta abarren gaikako bilketa.	137
HHSen tratamendua-errefusa: Garbiker S.A. foru sozietatearen tasa	106
Borondatezko eta nahitaezko diru-bilketarako laguntza, ikuskapen-plana	160
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	157
Herriko argiteriaren mantentze-lana	137
Esku-hartze soziokomunitarioa	101
Kultura kudeaketa: Kultur Etxea, ikastaroak eta jarduerak	95
Udal eraikinen garbiketa	65
Gizarte-laguntzako oinarrizko zerbitzua eta ingurumen-zerbitzu teknikoak	90
Beste txikiago batzuk (estolderia, desinfekzioa, lurperatzeak, konponketak, laneko prebentz., etab.) ...	211
Mugikortasunaren eta lekualdatzeen dietak	1
Alkatearen eta 8 zinegotziren dietak kide anitzeko organoen bileretara joateagatik	67
Zinegotzien 2 udal taldeei dirulaguntzak taldeen jarduerara	8
GUZTIRA	3.424

Udalak 2022ko ekitaldiaren kontura 2021eko ekitaldiko fakturak erregistratu zituen, 23.689,89 euroan.



Udalak 1999an Bilboko Portuko Agintaritzak emandako portuko instalazioen emakida eskuratu zuen, lursailen eta ur-xaflaren 5 eta 6 hektarea, hurrenez hurren, 30 urterako, 203.255 euroko kanona ordainduz 2021ean, BEZa barne.

Udalak Meatzaldeko Behargintza S.L.ri agindu zion Lanbideren 2020-2021 aldirako tokiko enplegu-programa garatzeko. Programa horren bidez, sozietateak 6 langile kontratatu zituen 2020ko abendutik 2021eko maiatzera bitartean udalerrian mantentze-lanak egiteko, eta Udalak 102.368 euro jarri zituen, zeinak mantentze-gastuen eta askotariko gastuen epigrafeetan erregistratu baitziren. 2021eko azaroan, Gobernu Batzarrak konpromisoa hartu zuen beste 54.951 euro emateko 2021-2022 tokiko enplegu-programari.

Udal kiroldegia kudeatzen duen enpresak, Udalak ordaindutako prezioaz gain, antolatzen dituen ikastaroen araberako prezio publikoak jasotzen ditu, eta 2021-2022 ikasturtean 60.748 eurorenak izan ziren.

Inbertsioak

Hona hemen 2021ean egindako inbertsioen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan Gastua
Gizarte zentroa Kardeon	826
La Arenako haur-jolasen plazaren erreforma integrala	404
Portuko mendi-hegala egonkortzeko proiektua	286
San Romango kiroldegiko errepedea hobetzea	269
Skate Park La Arenan	115
Gas naturaleko sarea instalatzea Kardeon eta sarearekin konektatzea La Arenan	105
Argiteria publikoko eta lokaletako koadro elektrikoak egokitzea	100
Aparkalekua La Cuestan	63 (*)
Argiztapena San Roman eta Valle arteko bidean	57
Altzariak, bulegoko ekipoak eta informatikoak	298
GUZTIRA	2.523

(*) 2021eko abenduaren 31n gauzatu gabeko obra adjudikatuak, 135.898 eurorenak.

2021eko abenduaren 31n La Cuestako aparkalekuko obrarako eta zenbateko txikiagoko beste 2 obretarako esleituta zeuden obren konpromisoak 220.462 eurorenak ziren. Gainera, HAPO idazteko lanek konprometitutako etorkizuneko aurrekontu-kredituak zeuden, 115.579 euroan.



A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZA KORRONTEAK

Hona hemen transferentzien eta dirulaguntzen xehakapena:

	Euroak milakotan
ONURADUNA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA	Gastua
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	426
Zierbena Portua S.A. (Ikus A.9)	390
Meatzaldeko Behargintza S.L. 2021eko aurrekontuko ekarpen orokorra	(*) 18
Meatzaldeko Behargintza S.L. Lanbide Planaren dirulaguntza, tokiko gazteen enplegua	(*) 18
DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK	243
Kirol-jarduera sustatu, bultzatu eta garatzea (arraun-kluba, futbola eta beste 4 txiki)	(*) 140
2020-2021 ikasturteko eskolatzeko-gastuetarako laguntza (226 ikasle)	(*) 45
Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduentzako laguntzak (17 onuradun)	24
Gizarte larrialdiko laguntzak (16 onuradun)	20
Ingelesa, euskara ikasketak eta beste udalerrri batzuetako kiroldegiko kuotak (48 onuradun)	9
Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak (2 erakunde)	(*) 5
DIRULAGUNTZA IZENDUNAK	8
Enkarterrialde landa-garapenerako elkarteak	(*) 8
DIRULAGUNTZA ZUZENAK	12
Bizkaiko Caritas (Galipa Mendi Birarako diru-bilketa)	5
Aspanova, pertsona fisikoa eta Elikagaien Bankua Elkar.	7
AURREKO EKITALDIETAN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ETA BESTE BATZUK	35
Eudel elkarteak, Bilbao Metropoli 30 eta Euskal fondoak	1
Meatzaldeko Behargintza S.L. Udaleko administrazio lanetarako langile bat	(*) 34
GUZTIRA	724

(*) Aztertzeke hautatuak.

Meatzaldeko Behargintza S.L.n eskualdeko 5 udalek parte hartzen dute beren helburu soziala diren zerbitzuak modu mankomunatuan emateko: enpresa-proiektuak eta auto-enplegua sustatzea, enpresetan prestakuntza-programak babestea, langabetuak orientatzea eta ezinduentzako eta kolektibo kaltetuentzako berdintasun-politikak garatzea. 2020ko abenduan, Sozietateak 2021erako aurrekontu bat onartu zuen, zeinetan Udalaren ekarpena 17.443 euroan zenbatesten baitzuen; Gobernu Batzarraren erabakiz Udalak onartu egin zuen ordaintzea.

Transferitutako eskumenak betetzeko ekarpenaz gain, Gobernu Batzarrak 34.134 euro ordaintzea onartu zuen, 2015etik Udalean administrazio-zerbitzuak ematen dituen sozietateko langile baten kostuagatik.



A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK ETA PASIBO KORRONTEA

Hona hemen 2021eko abenduaren 31n aurrekontuko zordunen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	Aurrekontu itxiak			Aurrek.	
	21/1/1	Kobr.	21/12/31	2021	GUZTIRA
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	280	239	41	15	56
Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.....	59	6	53	7	60
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.....	95	95	-	4	4
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	51	51	-	-	-
Hirigintzako lizentziak	5	5	-	-	-
Berandutza interesak.....	4	-	4	-	4
Iberdrola.....	15	15	-	45	45
1etik 3rako kapt. guztizko partziala	509	411	98	71	169
7. kap. Transf. eta kapital dirulag.....	153	153	-	104	104
GUZTIRA	662	564	98	175	273
Nekez egingarri diren saldoetarako zuzkidura					(60)
Aurrekontuko kobratzeko saldoak zuzkiduratik garbi					213

Aurrekontuko zordunak dira Balantzearen “Aktibo korronteko zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk” idazpuruko saldoaren osagai nagusia 2021eko abenduaren 31an, guztira 216.022 euroekin.

Udalak 2016a baino lehenagoko saldo guztiak zuzkitu ditu, eta % 75 eta % 25 artean 2016tik 2020ra kobratzeke daudenak. Aurrekontuko araudiak 2 urtetik gorako antzintasuna duten saldoen % 100eko hornidura ezartzen du, eta irizpide horren arabera, zuzkidura 18.347 euro handituko litzateke.

Pasibo korrontea

Hona hemen Balantzeko epigrafe horren osagai nagusiak xehakatu dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Saldoa	
Epe lab. zorrak	844	
Aurrekontuko hartzekodunak: Inbertsioak.....	465	
Hartzekodun ez aurrekontukoak: fidantzak.....	379	
Hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk	755	
Aurrekontuko hartzekodunak: eragiketa arruntak	435	
Hartzekodun ez aurrekontukoak: JEZ foru gainkargua 2020 eta 2021	280	
Hartzekodun ez aurrekontukoak: Administrazio publikoak	29	
Hartzekodun ez aurrekontukoak: Beste txiki batzuk	11	

A.9 ZIERBENA PORTUA S.A.

Ibilgetua

Hona hemen Sozietatearen ibilgetuaren osagai nagusien xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2021eko altak	Saldoa 21/12/31
Erabilera anitzetarako eraikina.....	-	1.486
Pañol eraikina.....	-	335
Eraikinetan hobekuntz.: arraun-pabiloia, elkart. buleg., turismo-buleg.	-	661
Portuko pantalanak eta dartsena dragatzea.....	-	1.204
Portuko instalazioak ixtea.....	-	363
Hobekuntzak bainu-gunean.....	-	418
Garraio-gaiak (hiri-garraioko zerbitzua).....	-	99
Urbanizazioa, hiri-altzariak, transformadore elektrikoa eta beste.....	19	926
Ibilgetu materialaren kostuaren, guztizko partziala.....	19	5.492
Amortizazioa.....	(125)	(3.084)
Ibilgetu materiala amortizazioak kenduta		2.408

Sozietatea 2000. urtean sortu zen, Udalak 1999an emakidan lortutako lursailak eta ur-lamina kudeatzeko. Epe hori 2030ean amaituko da, eta urteko kanon bat ordaintzen da, 203.255 euro 2021ean, Udalaren gastuen aurrekontuaren kontura (ikus A.6). Gainera, Sozietateari lagatako lurretan, Udalak 268.430 euroko kostua izan zuen pabiloi bat eraiki zuen 2001ean, eta hori ere doan laga zitzaion Sozietateari.

Lagatako instalazioetan, Sozietateak aurreko taulan zehaztutako inbertsioak egin ditu. Lehen aipatutako pabiloia 10 urtez laga zitzaion Arrantzaleen Kofradiari 2001ean, 2018an beritu zen hitzarmenaren bidez. Doako lagapenaren indarraldia 2030era arte luzatu zen, eta arrantza-jarduerekin lotutako erabilerez bestelakoak baimendu ziren. Gainera, 2005ean, Sozietateak doan laga zion Zierbena Arraun Kirol Elkarteari erabilera anitzeko eraikinaren zati bat, 25 urterako.

Udalaren lagapena eta sozietateak 2001ean (2018an luzatua) eta 2005ean egindakoak ez zituen azken horrek erregistratu.

Aurreko inbertsioak finantzatzeko Udaletik eta EAetik jasotako kapital-transferentziak eta -dirulaguntzak Balantzeko Ondare Garbia epigrafean erregistratzen dira, eta 2021eko abenduaren 31n 2,4 milioi euroko saldoa zuen. Emaitzari egindako urteko egozpenak (100.722 euro 2021ean) ekitaldiko sarrerak eta gastuak berdintzeko behar den zenbateko doiarekin egiten dira, finantzatu zituzten elementuen amortizazio-zuzkidurak kontuan hartu gabe.



Ustiapeneko beste sarrera batzuk

Hona hemen Sozietateko sarreren epigrafe nagusia xehakatur:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Zenbatekoa
Sozietatearen jarduerarako Udalaren transferentzia.....	390
Itsasontzien amarratze-tarifa	54
Bilboko Portuko Agintaritzaren tasa.....	5
SARRERAK, GUZTIRA	449

Pertsonala

Hona hemen 2021eko abenduaren 31n pertsonaleko gastuak eta plantilla:

Euroak milakotan eta kopurua		
	Gastua	Plantilla
Lan kontratu finkoko langileak.....	73	3
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	54	(*) 2
Guztizko partziala.....	127	5
Gizarte Segurantzza	44	
Elkarkidetza.....	4	
Arreta sanitarioa eta langile finkoen aseguruak.....	7	
LANGILE GASTUAK GUZTIRA	182	

(*) 2019an langile 1 kontratatu zen lanpostu huts bat betetzeko, eta 2021ean bitarteko langile 1, lanpostuaren titularrak LEI zela-eta ordezkatzeko.

2021eko ekitaldian, langile bat kontratatu zen aldi baterako ezintasunagatikoko baja bat betetzeko, eta iraupen laburreko 6 kontratu formalizatu zitzaizkien beste 2 langileri, oporrak eta langileen lizentziak betetzeko.

Ustiapeneko beste gastu batzuk

Euroak milakotan	
	Gastua
Eraikinen eta instalazioen mantentze-lanak	76
Eraikinak garbitzea	(*) 27
2 ibilgailuren mantentze-lana egitea.....	11
Energia elektrikoa.....	(*) 36
Instalazioen, ibilgailuen eta langileen aseguruak	(*) 21
Aholkularitza juridikoa eta kontabilitatekoa	21
Portuko hondartzako sorospen-zerbitzua.....	27
Apiriletik uztaillera bitarteko zerbitzuak indartzea	13
Beste txiki batzuk	17
USTIAPEN GASTUAK GUZTIRA	249



Herri Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurreko taulan adierazitako 3 eskuraketak, 83.295 euro guztira, zuzenean esleitu ziren; ordea, zenbatekoa kontuan hartuta, prozedura irekiaren bidez esleitu behar ziratekeen, SPKLren 159.6 artikulua jasotzen duen sinplifikatua erabil zitekeelarik.

A.10 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

KONTRATUA	ESLEIPENA			Sub- gazioa	Gastua 2021	AKATSAK	
	Data	Prozedura	(*) Zenb.			A	B
1. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (2 urte)	aza-2019	Irekia	(**) 358	4	157	A1, 2, 3	
2022rako luzapena	urt-2022		179				
2. 10 agente zibiko La Arena eta El Puerton, uda 2021 ..	api-2021	Irekia	115	-	119	A1, 2, 3	B
Esp.aldat. 2 agente zibiko 2021.12.31ra arte	urr-2021		7				
3. Gizarte zentroa Kardeon	mai-2020	Irekia	850	-	826	A1, 3	
GUZTIRA			1.509	4	1.102		

(*) Esleitutako zenbatekoak, BEZa barne.

(**) Aleko prezioak: esleitutako zenbatekoa zerbitzu-orduen hasierako balioespenetik eskuratzen da.

AKATSAK	Esleipenaren Esped. kop. zenbat.	
A ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA		
1. Honako hauen justifikazio-memoria falta da: aukeratutako irizpideak, lotetan banatzea, bitarteko nahikorik ez izatea eta beste alderdi batzuk	3	1.509
2. Kontratuaren xedearekin zerikusirik ez duten irizpideak eta prezioaren irizpiderako formula proportzionala	2	659
3. Kontratua ez da kontratatzailearen profileen argitaratu	3	1.509
B BERARIAZKO AKATSA		

Beste erosketak batzuk

Gainera, beste erosketak batzuk aztertu ditugu eta ikusi dugu zenbait kontratari indarraldia amaitu zaien arren egikaritzen jarraitu dutela:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Indarraldiaren amaiera	Exekuz. amaiera	Gastua 2021
Lorezaintza eta bide garbiketa	api-2019	-	288
Ingurumenaren arloko laguntza teknikoa	eka-2020	abe-2021	41
GUZTIRA			329

Horrez gain, Udalak 2010ean arreta sanitarioko zerbitzu osagarriak kontratatu zituen bere langileentzat. Kontratuak isilbidezko luzapenak aurreikusi zituen, eta horien iraupena 2021era arte luzatu da, kontratazio-araudiak agintzen duen 6 urteko gehieneko iraupena gaindituz. 2021ean 20.238 euroren kostua izan du.



Halaber, zuzenean adjudikatutako eskuraketak ere badaude, prozedura ireki edo ireki sinplifikatu bidez egin beharrean:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Gastua
Eraikinen argiteria publikoa eta elektrizitatea.....	92
PROZEDURA IREKIA EDO IREKI SINPLIFIKATUA GUZTIRA	92

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	Gastua
Hirigintzako aholkularitza	47
Instalazioen mantentze-lana	46
Udal aretoen garbiketa (2021eko urtarriletik ekainera).....	23
Paper- eta pila-bilketa.....	24
PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU LABURTUA GUZTIRA	140

Zaborra biltzeko kontratua 2021eko irailetik aurrera egiten jarraitu zen, baina Udalak ez zuen kontratuan aurreikusitako luzapena formalizatu. 2022ko uztailean, 2023an deitutako lizitazio berria adjudikatu arte luzatzea erabaki zen, eta 78.707 euroraino iritsi zen 2021eko irailetik 2022ko uztaileira bitarteko gastua.

TXOSTENAREN ONDORIOEI EGINDAKO ALEGAZIOAK

II. IRITZIA

II.1 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak 2021ean 2 zerbitzu-kontratu gauzatzen jarraitu zuen, 328.951 euroren kostuarekin, nahiz bi-biak mugaeguneratuak zeuden eta luzaezinak izan (SPKLren 29.4 artikulua) (ikus A.10).

ALEGAZIOA

Alegazioa: Honako hauek kontratatzeari buruzkoa da:

